

EUSKARAZ EGINDAKO IKASKETA OFIZIALEN ZIURTAGIRIA ETA EGIAZTATZETIK SALBUESTEKO PROZEDURA

C1 ETA C2 MAILAK

Gradua euskaraz (osorik edo ez) ikasi baduzu, irakurri arreta handiz gida hau eta kalifikazioen ziurtagiria jasotzean, gida honen arabera dagokizun euskara maila ezagutu ahal izango duzu.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoa

Eusko Jaurlaritzako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera (28/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, bidez moldatua), unibertsitate-ikasketak euskaraz burutu dituen graduatuak C1 edo C2 euskara maila egiaztatetik salbuetsiak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio osoan.

Gida honetan beronen laburpena eta azalpen praktikoa eskaintzen dizkizugu.

BALIOKIDETZAREN IRIZPIDEAK

Ondorengo taulan ikus daitekeenez, aukera desberdinak daude C1 eta C2 euskara mailak lortzeko. Honela, ikasleak dagozkion euskara mailak egiaztatetik salbuetsia izan nahi badu, bere ikasketak aurretik ondo planifikatu behar ditu:

I. ERANSKINA APIRILAREN 3KO 47/2012 DEKRETUA ALDATZEKO DEKREUARENA

Euskaraz egindako ikasketak	Baldintza gehigarria	Euskarako hizkuntza-prestakuntzako kreditu espezifikoak	Hauen baliokide diren mailak egiaztatetik salbuetsita
48 ECTS	Euskaraz egindako gradu-amaierako lana edo master-amaierako lana	12 ECTS	C1
84 ECTS		12 ECTS	C1
114 ECTS		6 ECTS	C1
144 ECTS			C1
Doktorego-titulua (tesia euskaraz egina eta defendatua)			C2
Euskal Ikasketetako Gradua edo Euskal Filologiako Gradua			C2
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua (A hizkuntza = euskara)			C2
Euskal Hizkuntza eta Kulturako Gradua			C2

1. oharra: eskatzen diren ECTS kredituak lor daitezke bai graduko titulazio bakar batean, bai graduko titulazio bakar bati eta master ofizial bakar bati dagozkien kredituak batuta.

2. oharra: gradu-amaierako edo master ofizialaren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez den kasuetan, lan horri dagozkion kredituek balio bikoitza izango dute lehen zuta-beko ECTS kredituen gutzizkoa lortzeko zenbatzen direnean.

Letren Fakultateko graduen kasuan, tipologia desberdinekin topo egiten dugu. Jarraian graduz graduko azalpena emango dugu, adibide praktiko batzuekin batera.

Euskal Ikasketak

Euskal Ikasketetako Gradua eginda, C2 euskara mailaren aitortzea lortzen da zuzenean.

Itzulpengintza eta Interpretazioa

Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduan A hizkuntza euskara denean C2 euskara mailaren aitortzea lortzen da zuzenean, baldin eta A hizkuntza oinarri daukaten irakasgai GUZTIAK euskaraz egiten diren, GRAL-a barne (144 ECTS + GrAL-a).

Irakasgairen bat gaztelaniaz egitekotan, ikasleak ez du C2 jasoko eta, C1 jasotzeko eskubidea duen jakiteko, aurreko taularen arabera egin beharko ditu kalkuluak.

Historia, Artearen Historia eta Geografia eta Lurralde Antolakuntza

Hiru gradu hauen kasuan, aukera desberdinak daude C1 euskara maila lortzeko:

GRALa¹ euskeraz eginda

Hurrengo irakasgaiak euskaraz eginez gero, C1 maila lortzen da. Hiru aukera daude:

- >> "Mintzaera eta idazkera" + "Komunikazioa Euskaraz: Artea, Geografia eta Historia" + 48 ECTS (beste edozein 8 irakasgai) + GRAL
- >> "Mintzaera eta idazkera" edo Komunikazioa Euskaraz: Artea, Geografia eta Historia" + 102 ECTS (beste edozein 17 irakasgai) + GRAL
- >> 120 ECTS (22 irakasgai) + GRAL

GRALa euskaraz egin ezean:

Hurrengo irakasgaiak euskaraz eginez gero, C1 maila lortzen da. Hiru aukera daude:

- >> "Mintzaera eta idazkera" + "Komunikazioa Euskaraz: Artea, Geografia eta Historia" + 84 ECTS (beste edozein 14 irakasgai)
- >> "Mintzaera eta idazkera" edo Komunikazioa Euskaraz: Artea, Geografia eta Historia" + 114 ECTS (beste edozein 19 irakasgai)
- >> 144 ECTS (24 irakasgai)

¹ Gradu Amaierako Lana ez ezik, Master Amaierako Lana eginda ere lortu daiteke C1 euskara maila modalitate honetan.

Filologia (Alemana, Frantsesa, Hispanikoa, Klasikoa)

Gradu hauetan hurrengo aukerak daude C1 euskara maila lortzeko:

GRALa² euskeraz eginda

Hurrengo irakasgaiak euskaraz eginez gero, C1 maila lortzen da:

>> "Mintzaera eta idazkera I" + "Mintzaera eta idazkera II" + 48 ECTS (beste edozein 8 irakasgai) + GRAL

GRALa euskaraz egin ezean:

Hurrengo irakasgaiak euskaraz eginez gero, C1 maila lortzen da:

>> "Mintzaera eta idazkera I" + "Mintzaera eta idazkera II" + 84 ECTS (beste edozein 14 irakasgai, adibidez hautazko 8 irakasgai + derrigorrezkoetatik 6)

Ingeles Ikasketak

Nahiz eta GRAL derrigorrez ingelesez egin behar den, badago aukera bat C1 euskara maila lortzeko, hurrengo irakasgaiak eginez gero:

>> "Mintzaera eta idazkera I" + "Mintzaera eta idazkera II" + 84 ECTS (beste edozein 14 irakasgai, adibidez hautazko 8 irakasgai + derrigorrezkoetatik 6). Honek esan nahi du, praktikan, Ingeles Ikasketetako ikasleak Bigarren Hizkuntza bezala euskara hartu behar duela, C1 euskara maila izateko.

BALIOKIDETZA AGERTUKO DEN ZIURTAGIRIA

Gaur aplikazioan atal berezi bat dago euskaraz egindako kredituak zehazten dituena: ikasketa espedientea, batez best. notak / gainditutako kredituak (euskara).

Behin gradua amaituta, **hemen azaltzen diren datuak erabiliko dira C1 edo C2 maila lortu izatea egiaztatzeko.**

² Gradu Amaierako Lana ez ezik, Master Amaierako Lana eginda ere lortu daiteke C1 euskara maila modalitate honetan.

Gorago zehaztu diren irizpideak betez gero, **ikasleak ez du ezer eskatu behar**. Ikasleak baldintzak betetzen baditu, Ikaslearen Ziurtagiri Akademikoak azken orrialdeko paragrafo batean esanbidez jasoko du agiriak ikaslea C1 mailaren titulua aurkeztetik salbuesten duela. Paragrafo hori da EHUren ziurtagiria. Hauxe da atal horren itxura (adibide hau Filologiako ikasle batena da):

APIRILAREN 3KO 47/2012 DEKRETUA (2012/04/16ko EHAA) APLIKATZEKO INFORMAZIOA

Ziurtagiriko azken zutabearen E daukaten irakasgaiak euskaraz egin dira.

Gradu Amaierako Lana BAI 6,00 kredituak	
Euskaraz ikasitako kredituak	12
Euskaraz ikasitako beste irakasgai batzuetako kredituak	54
GUZTIRA	72

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzeari eta euskararen hizkuntza tituluak eta ziurtagiriak egiaztatetik salbuesteari buruzkoa) 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, dokumentu honen pertsona titularra salbuetsita dago euskararen tituluak eta ziurtagiriak egiaztatetik. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren baliokideak direlako, 47/2012 Dekretuaren 5. artikuluan zehaztutako ondorioetarako.

Ikaslearen Ziurtagiri Akademikoak azken orrialdeko salbuespen-paragraforik jasotzen ez badu nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren dekretuko baldintzak beteta izan (47/2012 Dekretua eta hura aldatzekoa zen ondorengo 28/2019 Dekretua), edo **kredituak graduko titulazioa eta master ofizial baten bidez lortzen badira**, kasu horretan, interesdunak dokumentu hauek bidali behar ditu posta elektronikoz euskara-plangintza@ehu.eus helbidera:

- >> Eskaera-orria (betetako pdf-a)
- >> Ikaslearen Ziurtagiri Akademikoaren kopia bat (pdf)
- >> NANaren kopia bat (pdf)

Ikaslearen Ziurtagiri Akademikoa aztertu ondoren, eta behin egiaztatuta baldintzak betetzen dituela, Euskararen arloko Errektoreordetzatik horren berri emango zaio Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari, salbuespen hori erregistratzeko, eta interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistroko ziurtagiria bertatik jaso ahal izango du.